



## LH-3. MAILA 2. UNITATE DIDAKTIKOA "Aniztasuna"



### LH3-2UD.ANIZTASUNA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Emakume bakoitza eta gizon bakoitza bakarra da, errepika ezina. Pertsona anitzak gara. Neska-mutilek berdintasunez elkarrekin bizitzen ikas dezaten, beharrezkoa da emakume bakoitza eta gizon bakoitza ezagutu eta errespetatu behar dituztela ulertzea.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p><b>1. Giza aniztasuna, pertsonen aniztasuna, jaiotzez ematen da (biologikoki) eta bizitzan zehar egiten da (kulturalki),</b> ala ez. Aniztasuna jaiotzean eta ikasten da, jaiotzean eta gizartearen errespetatu, babestu, ahalbideratu eta indartzen da. Ala, alderantziz, jaiotzean eta eraso egiten zaio, jaiotzean eta deuseztatu egiten da. Gizartearen eta pertsonen eraginek aniztasunaren alde ala kontra egiten dute.</p>	<p><b>1. Ipuinen ereduak ezagutu eta hausnartu.</b> Ondo identifikatu dituzte ipuinetan gehien bat emakumeek eta gehien bat gizonezkoek erabiltzen dituzten objektuak? Zalantzak egon dira? Zein objektu, ipuin edo pertsonai zehatzekin? Zergatik? Zein objektu aukeratu dituzte beraiek bizimodu ona izateko, ondo bizitzeko? Zeintzuk ez? Neskek zein mutilek objektu berberak aukeratu dituzte? Zeintzuk ez? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Aniztasuna, pertsona bakoitza bakarra eta errepika ezina izatea da.</b> Aniztasuna pertsona bakoitza norbera izatea, eta norbera izateko eskubidea errespetatzea da.</p> <p>→ <b>Aniztasuna onartu, errespetatu eta bere alde egiteko,</b> norbera izateko pertsona bakoitzaren eskubidea errespetatu behar da eta pertsona guztiak berdintasunez tratatu behar dira.</p>
<p><b>2. Genero estereotipoek eta rolerik giza aniztasunaren kontra egiten dute.</b> Pertsona bakoitza den modukoa eta denak anitzak izan beharrean, genero sistemak hierarkizatutako bi eredutan sailkatu eta mugatzen du giza aniztasuna: "maskulinoa" eta "femeninoa" (oka arrosa eta oka urdina).</p>	<p><b>2. Objektuekin jardun eta ikasi.</b> Ikasleek ondo identifikatu dituzte oka arrosaren eta oka urdinaren jarduerak eta ikasketak? Zeintzuk ez? Zergatik? Ondo bereizi dituzte oken (ipuin) pertsonaiak eta gelako (errealitateko) neskek eta mutilek? Zeintzuk dira alderik garrantzitsuenak? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Ipuin askok erakusten dituzten genero ereduak</b> eta erreferenteak identifikatu eta hausnartu. Pertsonaien aniztasuna, askatasuna eta berdintasunarekiko portaera aztertu.</p> <p>→ <b>Genero estereotipoak eta rolerik "desikasi",</b> aztertu eta gaitu. Berdintasunez eta askatasunez aniztasunean bizitzeko eta harremanak izateko beste eredu pertsonalak bilatu, balioa eman eta jarraitu.</p>
<p><b>3. Oka arrosa eta oka urdinen sistemak</b> ibilbide, ikasketa eta emaitza ezberdinak eskaintzen dituzte. Ondorioz, bitarteko, bizimodu, egoera eta estatus ezberdinak ahalbideratzen dituzte sexuaren arabera. Oka bietan daude edozein pertsonarentzat ondo bizitzeko beharrezkoak diren eta arriskutsuak diren ikasketak.</p>	<p><b>3. Oka arrosa eta oka urdina gaitu.</b> Bizimodu ona eta harreman pozgarriak izateko oka arrosan lortu daitezkeen ikasketak eta trebetasunak identifikatu dituzte? Zeintzuk ez? Zergatik? Eta oka urdinean lortu daitezkeenak? Neskek zein mutilek ikasketak baliogarri berberak identifikatu dituzte? Zeintzuk ez? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Genero ereduak jarraitzen ez duten pertsonak,</b> pertsonaiak, rolerik, portaerak eta harremanak bilatu, hausnartu eta imitatu, beti ere aniztasunaren, askatasunaren eta berdintasunaren aldekoak.</p>

→ **Aniztasuna sustatzeko, genero ereduak ezagutu, aztertu eta gaitu.**